

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Letizia Printzesak Cenifer barrutiko eraikin bioklimatikoa bisitatu du

Bertan, Nafarroako LHko hainbat ikastetxetako ikasleek enpresen praktika onei eta txarrei buruzko agerraldi bat egin dute.

Miércoles, 07 de marzo de 2012

Cenifer barrutiko ikasgeletatik barrena ibilbidea amaitu eta gero, Letizia printzesa zentroko barrutian bertan dagoen eraikin bioklimatikora bertaratu da. Eraikin hori hainbat motako energia berriztagarriei esker klimatizatzen da.

Eraikineran egindako bisitan, Letizia andreak arretaz entzun ditu Zentroko Jesus Usunariz zuzendariaren azalpen teknikoak, eta, gero, jardunaldian parte hartu duten LHko ikastetxeetako 40 ikasleekin "Enpresa eta ekimen ekintzailea" irakasgaiko eskola batera bertaratu da, non publikoan aurkezpenak egiteko hizkuntza-teknikak eta ariketa praktikoak landu ddiren. Halaber, Isabel Fernandez Solo de Zaldivar irakaslearen eskutik, arlo horretan ematen diren praktika onak eta txarrak eszenaratu dituzte.

Hain zuzen, telefonia mugikorreko enpresa baterako lan-elkarrizketa bat eszenaratu dute, eta Jorge Turrado Ferrero Cenifer barrutiko ikasleak elkarrizketaria antzeztu du.

Bestalde, Virgen del Camino Zentro Integratu Politeknikoko Maria Olagüe Baztan ikaslea eta Maria Ana Sanz Zentroko Felipe Solano Bueno ikaslea elkarrizketatu moduan aritu dira. Eskola amaituta, Lizarrako Institutu Politeknikoko Angel Los Arcos Iriarte ikasleak eta Iruñeko Egokitzen Sozialeko Institutuko Natalia Berroguí Urmeneta ikasleak enpresa-praktika bien diagnostikoa egin dute.

Eskolaren amaieran, printzesak simulazioan parte hartu duten ikasleak agurtu ditu, eta gaiari buruz Interneten topa ditzaketen hainbat bideo iradoki dizkie.

Halaber, antzezpenean, ikasle hauek aritu dira: Osasun eskolako Andrea Alvarez Irigoyen, elkarrizketarien



Agintariak "Enpresa eta ekimen ekintzailea" irakasgaiari buruzko eskolan.



Printzesa eta Barcina lehendakaria,

moderatzaille gisa; Tafallako Zentro Integratu Politeknikoko Ibai Urdin Del Rio ikaslea, elkarrizketatuen moderatzaille gisa; eta Tuterako ETI Zentro Integratu Politeknikoko Jose Maria Ibañez Castranado.

jardunaldira bertaratu diren ikasleekin eta irakasleekin.

Burlatako Ibaialde Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleek prestatutako aperitiboa

Jarraian, eta eraikin bioklimatikoaren kanpoan talde-argazkia egin eta gero, eraikin nagusira bueltatu dira, sukaldaritzako eraikina bisitatzera; bertan, Burlatako Ibaialde Bigarren Hezkuntza Institutuko Sukalde Zuzendaritzako Goi Mailako 17 ikaslek aperitiboaren prestaketa azaldu, eta gero zerbitzatu dute.

Jardunaldi horretan parte hartu dute baita ere Gabriel Angos Vallejo, Juan Luis de Esteban Gurpegui, Ruben Montaña Aramendia, Gonzalo Motilva Blazquez eta Gil Sevillano Gonzalez ikasleek, eta baita ere Maria Ana Sanz Bigarren Hezkuntzako Institutuko Ana Sanz Elena Santacana Jimenez irakasleak, Institutuko Bulego Laguntzailerako Hasierako Lanbide Kualifikazio Berezirako programako bost ikaslek lagunduta.

Aperitiboa honela osatu da: “salmorejo” basotxo eta urdaiazpiko-hautsa; Erronkariko gazta-krema; mugurdia, errukula, antxo eta azetona; izokin eta sesamo tartara; itsaski-koktela eta saltsa arrosa; borraja artzain-apurrekin; tartar steak-a pamesanoarekin; foie minicuit sagar errearekin eta aranekin; bakailao ajoarrieroa eta alkatxofak; olagarroa eta masaila; berberetxo eta lima; kroketa iberikoak; otarrainxka-tenpura; txibi-kizkurrak eta ahate-broxeta gaztarekin.